

æek
22. korrika

3. ALBISTEA

2022/01/19



A1

MAILA

**Amurriotik Donostiara,
ibilbide osoa aurkeztu dute.**

HITZETIKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Amurriotik Donostiara, ibilbide osoa aurkeztu dute.



Amurrion hasiko da 22. KORRIKA, Araban, Aiaraldea eskualdean. Gasteiztik 40 bat¹ kilometrora dago, eta Bilbotik 30 bat km-ra.

Martxoaren 31n hasiko da, eta, hamaika egunez, etenik gabe, gau eta egun, Euskal Herri osoa zeharkatuko² du KORRIKAK: Nerbioi ibaiaren haranetik³, Durangora joango da; Anbotoko Damari⁴ agur esan eta Gasteiza joango da. Itzulinguruka⁵ arituko da KORRIKA. Bidean, Euskal Herriko leku asko zeharkatuko ditu: lurralde berdeak eta basamortuak⁶; leize⁷ ikusgarriak eta kostaldeko itsaslabarrak⁸; mendateak⁹ eta lautadak¹⁰; Errioxako mahastiak eta Ezpeletako piper-landareak; herri txiki xarmagarriak¹¹ eta metropolia, "Bilbo Handia". Eta, horrelaxe, ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, Donostiaraino iritsiko da, Txillardegiren sorlekuraino¹². Apirilaren 10ean, milaka euskaltzale¹³ elkartuko gara Donostiako kaleetan, hitzez ekiteko prest!

KORRIKAREN APPA

KORRIKari jarraitu ahal izango diozue aplikazioarekin, eta gauza asko ikusi ahal izango duzue: ibilbide osoaren mapa, lasterketa non dagoen, noiz helduko den... KORRIKari lotutako jakinarazpenak¹⁴ ere irakurri ahal izango dira.

PETOAK SALGAI

KORRIKA dotore egiteko, salgai¹⁵ daude petoak: hiriburuetako dendetan, *online* eta euskaltegietan.

Hiztegitxoak:

1. bat: más o menos; *environ*
2. zeharkatu: atravesar; *traverser*
3. haran: valle; *vallée*
4. Anbotoko Dama: personaje mitológico que vive en el monte Anboto, encima de Durango; es uno de los nombres de la diosa Mari. *Personnage mythologique qui vit sur le mont Anboto, au-dessus de Durango; c'est l'un des noms de la déesse Mari.*
5. itzulinguruka: dando vueltas; *elle fera des détours*
6. basamortu: desierto; *désert*
7. leize: cueva; *gouffre*
8. itsaslabarrak: acantilados; *falaises*
9. Mendate: puerto de montaña; *port de montagne*
10. lautada: llanada; *plaine*
11. xarmagarri; encantador/a; *charmant*
12. sorleku: lugar de nacimiento; *lieu de naissance*
13. euskaltzale: personas a favor del euskara; *bascophile, défenseur de l'euskara*
14. jakinarazpen: notificación; *notification*
15. salgai: en venta; *en vente*

NONDIK NORA JOANGO DA? ZEIN ORDUTAN PASATUKO DA?

Martxoak 31

Amurrio 16:30
Balmaseda 19:23
Ugao 23:51

Apirilak 3

Cárcar 01:39
Tutera 11:43
Zangoza 22:59

Apirilak 6

Kanpezu 00:37
Igorre 15:12
Bilbo 19:37

Apirilak 9

Doneztebe 03:42
Kanbo 12:52
Baiona 17:29

Apirilak 1

Durango 05:11
Legutio 14:59
Gasteiz 17:07

Apirilak 4

Irunberri 00:37
Donibane Garazi 14:58
Maule-Lexarre 21:26

Apirilak 7

Barakaldo 00:00
Bermeo 13:33
Ondarroa 22:39

Apirilak 10

Irun 00:54
Hernani 06:49
Donostia 07:36

Apirilak 2

Agurain 00:05
Iruñea 09:18
Tafalla 20:57

Apirilak 5

Baigorri 03:50
Lekunberri 13:32
Lizarrar 20:53

Apirilak 8

Zumaia 03:08
Andoain 08:48
Beasain 19:39

1. Azpimarratu forma egokiak, eta esan esaldiak egia ala gezurra diren:*Subraya las formas adecuadas y dí si las frases son verdaderas o falsas:**Mettez en évidence les bonnes formes et indiquez si les phrases sont vraies ou fausses :***E G**

- 1. **KORRIKA / KORRIKAK** Amurriotik Durangora joango da.
- 2. KORRIKAn, **Korrikalariak / korrikalariak** ez dute **mendaterik / mendateak** igoko.
- 3. KORRIKAK kostaldea zeharkatuko **da / du / zaio / dute**.
- 4. **Balmasedakoak / Balmasedakoek** pozik egongo dira, zeinen ordutegi ona duten!
- 5. Baionakoek Bilbokoek baino lehen egingo **du / dute / ditu** KORRIKA.
- 6. Baigorrikoek oso goiz jaiki beharko **dira / dute / zaie** KORRIKA egiteko.
- 7. Ondarroakoei komeni zaie goiz **afaldu / afaltzea / afaltzera**.
- 8. Beasaindik Zumaiatik baino lehen **pasatuko / pasatzen / pasa** da KORRIKA.
- 9. KORRIKA **apirilaren / apirileko** 8an iritsiko **du / da** Donostiara.

2. Kokatu leku hauek mapan:*Localiza en el mapa los siguientes lugares:**Localisez sur la carte les lieux suivants :*

1. Abadia jauregia (Hendaia)

2. Xabierko gaztelua
(Zangozako merindadea)


3. Gaztelu Zaharra (Maule-Lexarre)

4. Gaztelugatxe
(Bakiotik Bermeorako bidean)5. Ulibarri-Ganboako urtegia
(Legutio ondoan)


6. Itzurun hondartza (Zumaia)

7. Erregeren Bardea
(Tuteratik Cadreitarako bidean)

8. Arnagako lorategiak (Kanbo)



9. Sorginetxe trikuharria (Agurain)



PROZEDURA:

- ▶ Albistearen berri emango dugu, eta, horrela, **1. jarduera aurkeztuko dugu**.
- ▶ Ikasleek albistea irakurri eta ulermen-ariketa egingo dute (2.- 3. or.).
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu, eta albistea komentatuko dugu (aplikazioa¹ gure telefonoetan deskargatu, eta ikasleekin ikus dezakegu, eta, ikusi ahala, egoki deritzegun azalpenak eman).

ERANTZUN ZUZENAK:

1. **KORRIKA** Amurriotik Durangora joango da. EGIA
2. KORRIKAn, **Korrikalariek** ez dute **mendaterik** igoko. GEZURRA
3. KORRIKAK kostaldea zeharkatuko **du**. EGIA
4. **Balmasedakoak** pozik egongo dira, zeinen ordutegi ona duten! EGIA
5. Baionakoek Bilbokoek baino lehen egingo **dute** KORRIKA. GEZURRA
6. Baigorrikoek oso goiz jaiki beharko **dute** KORRIKA egiteko. EGIA
7. Ondarroakoei komeni zaie goiz **afaltzea**. EGIA
8. Beasaindik Zumaiaetik baino lehen **pasatuko** da KORRIKA. GEZURRA
9. KORRIKA **apirilaren** 8an iritsiko **da** Donostiara. GEZURRA

- ▶ Euskal Herriaz zer dakiten galdetuko dugu: zenbat herrialde ditu? Zein dira hiriburuak?
- ▶ Euskal Herriko herrialde eta hiriburuak zein diren azalduko dugu, pantaila handian egoki deritzogun mapa² jarrita (ikasleei 4. orrialdea banatuko diegu).
- ▶ Euskal Herriko zein leku ezagutzen duten galdetuko diegu: gustatu zaien, noiz eta norekin egon diren bertan...
- ▶ **2. jarduera azalduko dugu** (3.- 4. or.): binaka, irudietako lekuak mapan kokatu beharko dituzte.
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu. Horretarako, pantaila handian egoki deritzogun mapa² jarriko dugu ikusgai (nahi izanez gero, euskarazko Wikipediak dakarrena ere pantaila handian paratu, eta gure hitzetan azal diezaiekegu leku horiei buruz zer jartzen duen. Ikus dezatela euskarazko Wikipedia ere badagoela...).

ERANTZUN ZUZENAK:

1-i; 2-d; 3-e; 4-f; 5-a; 6-g; 7-c; 8-h; 9-b

- ▶ Amaitzeko, KORRIKAn ibilbideari erreparatu eta **gaiari buruz arituko gara ikasleak parte hartzera animatuz** (ikus ibilbidea³ pantaila handian): noiz pasatuko da KORRIKA gure herritik edo gure herritik hurbil? Nondik iritsiko da? Zein ordutan? Norantz joango da? Nora joango gara KORRIKA egitera? Norekin? Euskaltegiko lagunekin animatuko ote liratekeen galdetu...

EDUKIAK:

Errepasa edo aurkez ditzakezue: nondik nora? Noraino? Noiz? Zein egunetan? Zein ordutan? Norekin?

- Hemen dituzue Euskaltzaindiaren taulak eta azalpenak: <https://labur.eus/Lxqie>
- Eta hemen ikasleentzako azalpenak (gaztelaniaz): <https://labur.eus/ore6Y>
- ZEIN ORDUTAN? Ikasteko, ikus *ERANSKINA: Zein ordutan AEK.pdf*

¹ Aplikazioa deskargatzeko:

iPhone: <https://apps.apple.com/es/app/korrika/id594215660>

Android: <https://play.google.com/store/apps/details?id=eu.aking.korrika>

² Ikusi *EH eta ibilbidearen IRUDIAK.zip* karpeta.

³ Ibilbidea: <https://korrika.eus/eu/ibilbidea>